


LAGINKETA INSTRUKZIOAK

- 1.- Laginketa ezingo da egin ongarri mineral bat bota ondoren eta ezta kareztatu edo ongarri organiko bat bota ondoren ere (gorotza). Horiatarikoren bat egin bada, gutxienez lau hilabete itxaron beharko dira laginketa egiteko.
- 2.- Ezaugarri uniformeko sailen lagin bana hartuko da. Lur mota, malda edo landaketaren itxura dela eta eremu desberdinak daudela ikusten bada, eremu desberdin bakoitzaren lagin bat ekarriko da.
- 3.- Lagina hartu baino lehen, hartuko den lekutik belarrak, hostoak eta harri handiak kendu beharko dira.
- 4.- Lagin bat 15 laginorde txikik osatzen dute, azken horiek lurzatian sigi-saga ibiliz hartzen dira. Lurzatiaren hedadura eta hartu beharreko laginordeen kopuruaren arabera finkatutako pauso kopuru jakin baten ondoren hartzen da laginorde bakoitza. Azkenik, nahastu egiten dira aurkeztuko den azkeneko lagina osatzeko, eta kilo edo litro bat nahikoa izango da analisiak egiteko.




● Laginordeak hartzeko puntuak

1. irudia.- Lurzati batean laginak nola hartu





Landatuko den edo landatu den espeziearen sustrai sistemaren sakontasunaren araberkoa izango da laginketaren sakontasuna ere.

- Zelaietan 2 eta 10 cm artekoak
- Baratzetan 2 eta 15 cm artekoak
- Zuhaiztietan (fruitu arboletan) 2 eta 25 cm artekoak

Laginordea edo lagina goitik behera hartu beharko da, irudian agertzen den moduan aitzur batekin hozka bat eginez xfla bat hartzeko.



5. Bildutakoa kilo bat baino gehiago bada, laginorde guztiak ondo nahastu beharko dira eta gutxi gorabehera kilo bat aurkeztu, gainontzekoa bota egingo delarik. Horretarako, lagina kutsatuko luketen ongarririk edo produktu fitosanitariorik izan ez duen plastiko bat hartu; haren gainean laginordeak jarri, zokorrak jo eta nahastu. Behin lagina nahastu ondoren, lau koadrantetan zatitu eta kontrako bi koadranteak baztertu 2. irudian azaltzen den moduan. Beharrezkoa izanez gero berriz ere laurdendu kilo bateko lagina lortu arte.



2. irudia.- Laginordeak nahastu eta laurdentzea

6.- Ongarritze gomendiorik zehatzena eman ahal izateko komeni da laginarekin batera aurkeztea azken urtean zenbat ongarri eta noiz bota den; azkenekoz zenbat eta noiz kareztatu den edo, egin bada, materia organikoa zenbat eta noiz bota den; egun ze espezie dauden (tomatea, letxuga, sagarrondoak, pinuak, e.a.), noiz landatu ziren eta sailean aurretik zer zegoen landaturik. Hazkuntza garaian arazorik izan den ere azaldu beharko da.